

# ***Ingurumen Buletina***

- 1. Garoñaren itxieratik inoiz baino gertuago gaude***
- 2. Klima aldaketa asmatutako zerbait dela esaten dutenentzat...***
- 3. Planetaren urrats ekologikotik zor ekologikora***
- 4. EAEko 2012-2020 Mugikortasun Iraunkorrerako Planaren balorazioa***
- 5. Gomendatutako artikulua***

## **1. Garoñaren itxieratik inoiz baino gertuago gaude**

Azken egunetan Garoñako zentral nuklearra berriro ere albiste izan da. Irailaren 6an Nuclenorrek Garoñako zentral nuklearraren jarduera luzatzeko eskaria egiteko epea amaitu da, jarduera 2013ko uztaierarte dago onartua. Hau da Garoñaren itxierarako jarrita dagoen data, Zapateroren gobernuak bi urteko luzapena onartu zuenetik, baina PPko gobernuak 2019ra atzeratu zuen, beti ere Garoña kudeatzen duen enpresak luzapen hau eskatuko balu. Endesa eta Iberdrolak osatzen duten Nuclenorrek ordea ez du eskaririk gauzatu horretarako ezarritako epean. Orain Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak zentralaren behin betiko itxieraren deklarazioari loturiko dokumentuak aurkeztea eskatu dio Nuclenorri. Dokumentazio hau aurkezteko epea 2012ko azaroaren 6an bukatuko da.

Enpresak luzapena ez eskatzeko argudio ekonomikoak eman ditu. Industria Ministeritzak energiari, nuklearrari barne, zerga berriak jartzeko asmoa dauka. Bestalde, Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak exijitzen dizkion berrikuntzak 100 milioi euro inguru kostako dira. Guzti honen aurrean

Nuclenorrek zentralaren bideragarritasun ekonomikoa zalantzan jarri du. Hau izan da luzapen eskaera ez egiteko arrazoi nagusia. Enpresak luzapen eskaera egin ez izana Ministeritzari presioa egiteko modu bat izan daiteke, baina eskaera egiteko legezko epea pasa da.

Egoera honen aurrean, ELAk espainiar gobernuari exijitzen dio zentralaren jarduera luzapena eskatzeko epea ez zabaltzeko, dagoeneko itxita egon beharko litzatekeen instalazioa delako, bai zaharkitua dagoelako, baita suposatzen duen arriskuagatik ere. Garoñaren arriskua ageriko geratu da berriro ere udan, Belgikako Doel zentralaren itxiera ezagutu dugunean. Doelko zentralaren erreaktorearen ontziak arrakalak dituelako hartu da erabakia, Garoñako zentralak duen arazo bera. Iaz Garoña eta Fukushima instalazio bikiak zirela jakin genuen instalazio japoniar hau tragikoki ezaguna egin zenean.

Hotzikara sortzen duten kointzidentzia hauengatik eta zentral nuklear batek suposatzen duen arriskuagatik, ELAk espainiar gobernuari Garoñaren behin betiko itxiera exijitzen dio.

## **2. Klima aldaketa asmatutako zerbait dela esaten dutenentzat...**

Oraindik bada klima aldaketa errealitatea ez dela pentsatzen duenik. Ezkorrak diren hauentzat, uda honetan oso datu interesgarriak ezagutu ditugu.

Artikoaren urtzeak errekor berriak hautsi ditu aurtengo udan ere. Abuztu bukaeran Artikoak zuen izotz azalera erregistroak daudenetik izan duen hirugarren txikiena izan da, eta oraindik urtze garaia bukatu gabe zegoen. Artikoaren azalera 5,09 milioi km<sup>2</sup>, 1979-2000 epeko batez bestekoa baino 2,69 milioi km<sup>2</sup> gutxiago. Ekainean izotzaren urtze abiadura eguneko 100.000 km<sup>2</sup> izan zen, baina abuztuko egun batzuetan abiadura hau bikoiztu egin zen. Izotza urtzearen arrazoi nagusia berotegi efektuko gas emisioen hazkundeak eragin duen beroketa globala da.

Baina izotza urtzea eta itsasoaren maila igotzea ez dira arrisku bakarrak. Izotza urtzearen beste eragin larri bat CO<sup>2</sup> emisioak 10 aldiz gehitzea litzateke, orain izotz azpian dauden karbono deposituetatik aterako liratekeenak. Hau klima aldaketaren beste bizkortzaile bat izango da.

Klima Zientzien Institutu Kataluniarraren arabera, zeinek *Nature* aldizkarian honi buruzko lana argitaratu berri duen, izotzaren urtzeak degradazio eta

higadurak sortzen ditu, eta honek aldi berean Artikoko karbonoa liberatzen du. Liberatzen den karbono hau urteko 44 milioi tonara iritsi daiteke. Karbono depositu hauetako batzuk 40,000 urtean zehar izozturik egon dira. Atmosferaren beroketak urteetan zehar izoztuta egon diren depositu hauek aktibatzen ditu eta honek aldi berean karbono gehiago liberatzea suposatuko duen beroketa eragiten du. Arazo hau esponentzialki hazi daiteke ez badugu berotegi efektuko gasen emisio kopurua berehala jaisten.

Datu hauek ezagutu ondoren ¿nola egon liteke klima aldaketa asmakizun bat dela sinesten jarraitzen duenik?.

### **3. Planetaren urrats ekologikotik zor**

#### **ekologikora**

Ez da lehen aldia ELAko ingurumen buletinean urrats ekologikoz hitz egiten duguna. Urrats ekologikoa honela definitzen da: "Gure jarduerak ingurumenean duten eragina neurtu eta ebaluatzeko adierazlea da. Kontuan hartzen ditu baliabide naturalen kontsumoa, energia kontsumoa, hondakinen sorrera eta emisio kutsakorrek, bai modu zuzenean bai zeharka sortzen ditugunak. Adierazle honek pertsonen beharrak eta planetak birsortzeko ahalmena galdu gabe

eman diezagukeena alderatzen eta azpimarratzen du”.

Zor ekologikoa ordea planetak gure urrats ekologikoa ezin duela beregain hartu eta “defizitean” sartzen dela esan nahi du. 2012an planeta defizit ekologikoan sartu zen abuztuaren 22an. Egun horretatik aurrera planetaren baliabideen gainetik bizi gara. Urteko gainontzeko egunetan planetaren eta hurrengo belaunaldien kontura biziko gara, planetaren baliabideak gehiegi esplotatuz eta atmosferan karbonoa pilatuz. Kontsumo erritmo hau mantentzeko 1,5 planeta beharko genituzke.

Baina datu hau kezagarria bada are kezagarriagoa da Hego Euskal Herriaren datua. Mundu mailako kontsumoaren batez bestekoaren oso gainetik gaude gu, hiru planeta behar ditugu gure kontsumoa mantendu ahal izateko. Horrek esan nahi du dagoeneko gure baliabideen gainetik bizi garela apirilaren 22tik. Eta planetaren kontsumoa goraka doa nahiz eta krisian egon.

Baina horrela bizitzea ez da doakoa, ekonomikoki gastu handia suposatzen du. Adibidez, karbono emisioak murrizteak mundu mailako BPGren %1 eta %2 bitarteko inbertsioa suposatzen du. Baina inbertsio hau ez egitea oraindik garestiagoa da, mundu

mailako BPGaren %5 eta %20 bitarteko kostea izango du. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da ekonomiak pertsonak eta planeta kontuan hartzea. Krisiari eman beharreko erantzunaren zati dira defizit ekologikoa murriztea eta eredu ekonomiko justu eta iraunkor bat, kapitala hazi beharrean pertsonen ongizatea haztea eragingo duen eredu bat.

#### **4. EAEko 2012-2020 Mugikortasun**

##### **Iraunkorrerako Planaren balorazioa**

Azken urteetan mugikortasuna asko hazi da, eta behar hau ibilgailu pribatuarekin betetzen da batez ere. Kasu batzuetan erosotasuna edo ohituragatik, baina askotan ibilgailu pribatua da gure mugikortasun modu bakarra, pertsona eta herri guztiek ez dutelako garraio publiko egokirik eta erabilgarririk. Eusko Jaurlaritzak Mugikortasun Iraunkorrerako enegarren plana aurkeztu du. Administrazio bakoitzak berea du, eta oraingo honetan ere antzeko helburuak planteatu dira:

- Trenaren erabilera handitzea.
- Ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitzea.
- Merkantzien garraioa hobetzea.

Helburu hauek logikoak eta onargarriak dira, baina azken urteetan

helburu bereberekin gabilta, eta plan bat bestearen atzetik, behar berdinekin jarraitzen dugu, ez dugu ezer aurreratzen.

Beti aipatzen da trenbidea bultzatu behar dela, baina apustu hori AHT bezalako azpiegitura handien eraikuntzan oinarritzen dute. Hau bateraezina da markatutako beste helburu batekin: azpiegituren eraginkortasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa. Proiektu hauek ingurumen eragin handia dute, atzeraezina, eta koste sozioekonomikoa izugarria da. Benetan behar duguna gaur egungo sarea hobetzea da, herritarrek gehien erabiltzen dutena hain zuzen.

Ezinbestekoa da zerbitzuen maiztasuna handiagotzea, bereziki hirietatik kanpoko zonaldeetan, bai trenena bai autobusena. Ibilgailu pribatuaren erabiltzaile handienak hiriguneetatik kanpo aurkitzen dira eta hau horrela izatearen arrazoietakoa bat herri askok duten garraio publiko eskasa da. Maiztasunak oso eskasak dira eta garraio publikoan bidai bat egiteko behar den denbora ibilgailu pribatuan behar denaren bikoitzera iristen da maiz, planak berak onartzen duen bezala.

Planak eskaintza handitu behar ez dela dio, baina ELA ez dago horrekin ados. Eskaintza zabalagoa da zonalde hiritarretan,

nahiz eta hirien barruan ere badauden zerbitzu eskaseko zonaldeak, baina zerbitzuak oso eskasak dira batez ere hiri zonaldeetatik kanpo.

Gehiegizko mugikortasuna ez da bakarrik pertsonak dugun arazoa, merkantzien kasuan produktu askok ehundaka edo milaka kilometro egiten dituzte helburura iritsi aurretik. Plan honek egiten duen bezala plataforma logistiko berriak proposatzeak ez du arazoa konpontzen, areagotu soilik egingo luke. Trenbide bidezko merkantzia garraioari dagokionez, behin betiko argitu behar da AHTak ez duela balio merkantziak garraiatzeko eta Plan honek ez du hori argitzen. Beraz trenbide bidezko garraioak oraindik heldu ez den baina heldu behar den erronka bat izaten jarraitzen du.

Plan hau asmo-adierazpen hutsa da, gidalerroak dira, ondoren administrazio bakoitzak bere jardueretan, eta plan honek egitera bultzatzen dituen mugikortasun iraunkorrerako planetan txertatu beharko lituzkeenak.

Ez da logikoa gobernu batek legealdia bukatzeko bi hilabete falta direnean hurrengo 10 urtetarako plan bat aurkeztea, baldin eta hauteskunde helburu bat ez badu. Guzti honengatik ELAk plan honen inguruan egiten

duen balorazioa ezin da besterik izan: beste plan batzuk bultzatzeko plan bat da, asmo-adierazpena, baina inongo ekintza konkreturik planteatzen ez duena. Hauteskundeetarako propaganda.

### **5. Gomendatutako artikulua**

Aurreko buletinetan ez ohiko gasaz eta berau ateratzeko metodoaz hitz egin dugu, **fracking**. Baina garrantzitsua da berriro gogora

ekartzea, batez ere orain, fracking-aren aurkako hainbat plataforma eta asanbladak urriaren 6rako Gasteizen manifestazioa deit dutenean (18:30 Ama Zuriaren plaza). Baina oraingoan gomendatzen dizuegun artikulua ez da plataforma edo asanblada batek idatzirikoa, gai honen inguruan Fidel Castrok idatzitakoa da.

Klikatu [hemen](#) artikulua irakurtzeko.